

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/10/15 | 331

🌀	Gurasoek ezin dituzte haurrak euskaraz erregistratu
🌀	Denboraldi gazi-goza Basagainen
🌀	Eskola hiztun bila
🌀	Prebiotikoa edo probiotikoa?
🌀	Uxue Fernandez Lasa, emakumea pilotari
🌀	Agenda, horoskopoa, zerbitzuak...



Onddoen
koloreetatik
bada zer ikasi



Kimetz

Neska eta mutil arropa

Kale Nagusia, 13 • Tel. 943 24 94 96 • TOLOSA • www.kimetz.eu



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxe: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Amaia Goikoetxea
 Orbeagozo, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igar-tua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpuru, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
 Banatzaileak: Olatz Garmendia
 Juankar Arregi
 Idazkaria: Nora Olano
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GORTIK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA
 Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
 diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Onddoak, anitzak bezain aberatsak

Sukaldeak agintzen duenean, beraien zapore eta taktuagatik oso preziatuak dira batzuk eta, duten pozoiatatik baztertuak besteak. Onak eta txarrak. Hala bereizten dira sarri, jangarriak diren ala ez esan nahi denean. Onddoek, ordea, plater preziatuak sortzeko gain, beste erabilpen batzuk ere badituzte pertsonentzako, eta, betebeharrak garrantzitsuak naturarentzako.

8-11. orrialdeak

Javier Hernando, medikuntza orokorreko familia medikua eta Helena Zubillaga, pediarrarekin elkartu gara medikuntzak bere egunerokotasunean dituen ezaugarri eta erronkei buruz hitz egiteko.

Elkarrizketa: Javier Hernando eta Helena Zubillaga 18-20 orrialdeak

6	Iritziaien leihoa: Silvia Kamio eta Jon Azpiroz	4-5
6	Normalizazioa: Guraso gehienek ezin dituzte haurrak euskaraz erregistratu	6-7
6	Eskualdeko albisteak: Denboraldi gazi-gozoa Basagainen	12-13
6	Eskualdeko albisteak: Eskola hiztun bila	14-17
6	Koxk!: Prebiotikoa edo probiotikoa?	21
6	Kirol saltsa: Uxue Fernandez Lasa, emakumea pilotari	20-21

Zahartzaro osasuntsua, mendekotasuna prebenitzea



Silvia Kamio
Psikologoa, Gerontologia Psikosozialean Masterra.
Lahar Elkargoko kidea.

4

Gizakien bizitza gero eta luzeagoa da, eta hau gizateriaren lorpen handi bat da. Behin bizi-itxaropena gehituta, bizi kalitatezko urteak lortzea da oraingo erronka nagusia. Horretarako zahartzaroon osasunez bizitzen ikasi behar da. Artikulu honetan, zahartzaro osasuntsu bat lortzeko iradokizun batzuk azaltzen dira, mendekotasun arriskua sortzen duten gaixotasun batzuk prebenituz eta baita ere galera fisiko zein kognitiboei aurre egiteko laguntzak erabiliz. Nagusien mendekotasuna prebenitzeko eta beraien bizi kalitatea gehitzeko portaera osasungarrirako jarraibideak zehazten dira, bai arlo kognitiboan, bai fisikoan eta bai afektiboan.

Zahartzaro modu ezberdinak aurreikusten duten eredutik abiatzen gara, eta zahartzaro arrakastatsu bat sustatu nahi dugu, honako ezaugarriekin "gaixotasuna eta mendekotasuna izateko aukera gutxi, funtzionamendu kognitibo eta fisiko altuak eta bizitzarekiko konpromiso aktiboa".

Mendekotasunaren prebentzioa guztiz lotuta dago zahartzaro osasuntsu eta aktibo baten sustapenarekin. MOEk honela adierazten du osasuna: "ongizate fisiko, mental eta sozial osoko egoera, eta ez bakarrik gaixotasunik eza".

MOEk definitutako zahartzaro aktiboa zera da: "bizi osoan zehar ongizate fisiko, sozial eta mentalerako aukerak optimizatzen dituen prozesu bat da, bere helburua bizi osasuntsuaren itxaropena, emankortasuna eta bizi kalitatea zabaltzea duena".

Frogatuta dago ekintzak eta jarduerak praktikatzek jarraera aktiboak mantentzen laguntzen duela; honek ongizate psikofisikoa sortzen du eta nagusien autoestimua hobetzen du. Beraz, praktikatzeko diren ekintzek, denbora pasarako baliagarriak izateaz gain, pertsonaren funtzionamenduaren arlo ezberdinak estimulatzeko lagungarri izan behar dute.

Egin daitezkeen ekintzen arteko batzuk hauek dira:

- Arlo fisikoan: mantentze

soinketa, tai-chia, yoga, ibili, igeri egin, dantza, petanka, billarra, ping-ponga, eskailerak igo eta jaitsi.

- Arlo psikologikoan: funtzio kognitiboak estimulatzea (kontzentrazioa, arreta, hizkuntza, kalkulua, orientabidea, memoria...). Horretarako, adineko pertsonentzako memoria lantzeko tailerrak daude, baita kultur aretoak ere... Hala ere, eguneroko bizitzan zehar hainbat lan egin ditzakegu: gurutzegramak, hizki zopa edota beste horrelako jokoak praktikatzeko, ikusitako film bat edo irakurritako zerbait gogoratuz... Bestalde, estresari eta bizitzaren egoera batzuei aurre egiteko erlaxazio tailerrak ere badaude.

- Gizarte arloan: talde ezberdinen parte izateak eta gizarte sare bat edukitzeak autoestimua handiagotzen dute, beste pertsona batzuekiko hartu-emana errazten dute, eta gizartearekiko isolamendua saihesten dute. Betiko harremanak mantentzeaz gain, komenigarria da, adibidez, jardueraren batean boluntario gisa aritzea edota elkarte batean egotea.

Zahartzarora bizitzaren garai bat da, eta bere aukerak eta erronkak ditu. Zahartzaro aktibo eta osasuntsu baten urte gehiago eta hobeto bizitzen laguntzen du.

Hombres y mujeres de poca fe!

Bedaion badugu esaera bat, inork ez digu ezer eman-go guk ez badugu lanik eta proposamenik egiten.

Hilabete bat pasa da, Bedaion Abaetxe jatetxea ireki zenetik. Urte askotan udalari adierazitako beharra. Bidea ez da erreza izan, ez batzuentzat eta ez besteentzat ere. Baina aurkezturiko proiektu eta ideei ugarietatik, eta ez traba gutxiarekin, bat gauzatu dugu, bat martxan jarri dugu. Abaetxearen irekiera **OSO OSO** garrantzitsua da eta izango da Bedaiorako eta bedaiotarrentzat. Merezitako eta beharreko Abaetxea. Herri honentzako, proiektu traktorea izango dela pentsatzen dugu ondo gestionatu ezker, eta horrela izateko oraindik lan handia egin behar badugu ere, bide onean jarri dugu makina martxan.

Bedaion ilusioz gaude Abaetxeren martxarekin, hasiera bada ere, eta pozak itsutu egin diezagula onartuz, ilusioz eta esperantzaz gaude.

Jatetxe honek jada hasieran bada ere, lau pertsonen asteburuko lana ekarri du. Bertakoen produktuak azaldu eta saltzeko gunea dugu (gazta, babarrunak, ardiak, bakailaoa), hau da, zeharkako langileak ere mugitzen ditu (taxi zerbitzua etab). Bedaiora jende berria agertu da, txakolin eta pintxo bat hartzera, nola ez bazkaltzera eta afaltzera eta

bide batez inguruetan buelta bat emateko eskusarekin. Mendizale gehiago sumatu ditugu Aralarrera Bedaiotik abiatzen, Parke Naturalera sarrera zuzena daukagu eta hortaz gure ingurua ezagutarazteko beste aitzaki positibo bat dugu Abaetxe. Hasiera honek jada urtetan udalean azalduko gabeziak ere gehiagotu edo azaleratu egin ditu eta gabezi horiek zuzentzeko asmotan jarraituko dugu lanean.

Etxenike zientzialariak dio, etorkizuneko iraultza txikitatsunean datzala. Txikiak diren partikula horien mugimenduan, funtsean, izaeran eta ezagutzan. Nanoteknologia. Etxenikeren jarraitzailea dut emaztea eta gauza txikiak duten indarren antolakuntzan sinisten du. Hurrengo maila batean esan daiteke ohian edo baso batean, intsektu eta animalia txiki ugariak direla oreka mantentzen dutenak. Guztien armonia eta erlazioa mantentzen dutelako.

Bedaion aspalditik esan ohi dugun bezala, bertakoen erlazioa, lan eta laguntzeko gaitasuna, errespetua eta lankidetzeta dira bedaiotarren baliabide garrantzitsuenak. Aurrera jarraitzeko indarra ematen dutenak eta herri txiki eta xume hau mugimenduan eta bizirik dagoenaren adierazleak. Ekintza eta ideei txikiak, proposamen txikiak batura, barne-erlazioa eta indar txikiak batzea eta zen-



Jon Azpiroz
Bedaioako Artubi Elkarteko kidea

Honela hasi behar dut gaurko artikulua. Urteak daramatzagu ideiak gauzatu nahian, mendian gora Bedaioko ibilaldian, Artubi elkarteko mahai inguruan eta noski, etxean etxekoarekin hizketaldi luze eta sakonak egiten.

tzu zuzenean bideratzeak eman dezake nahi ditugun emaitzak.

Herriak egindako lana, gogoia, ilusioa eta nahia errespetatu da eta Bedaion gogoz jarraituko dugu lanean herri hau gauzatzeko, hobetzeko eta ezagutarazteko hamaika motibo ditugulako.

Honela, aurreko urteetako hotzak albo batera utzirik, aurten Bedaioko azoka berezia urriaren 31n ospatuko dugu. Datoren aurreratzea, eguraldia lagun izateko asmoa eta garai garaiko produktu gehiago merkaturatzea da. Ez ahaztu zita eta urriaren 31n azaldu Bedaiora!!!

Guraso gehienek ezin dituzte haurrak euskaraz erregistratu

Euskal Herriko haurrei jaio bezain pronto hasten zaizkie lehen hizkuntza eskubideak urratzen. UEMAko ordezkariak Euskal Herrian haurrak euskaraz erregistratu ahal izateko dauden arazoez galdetu diegu.

Erredakzioa

Zer da haurra erregistratzea?

Haurra jaiotakoan gurasoek egin beharreko lehenengo tramite administratiboa da. Haurra bi tokitan erregistra daiteke: jaio den udalerrian edo gurasoek bizitokia duten udalerrian. Haurrak bake epaitegietan edo erregistro zibiletan erregistratu behar dira. Horren eskumena estatuarena da.

Badago legezko mugarik haurrak euskaraz erregistratzeko?

Bake epaitegietako eta erregistro zibiletako jarduna 1957ko lege batean dago oinarrituta. 2005ean, lege horren 23. artikulua aldatu zen, gaztelaniaz ez ezik tokian tokiko hizkuntza ofizialetan ere haurrak erregistratu ahal izateko. Beraz, 2005etik legez aitortuta dugu haurrak euskaraz erregistratzeko eskubidea.

Zergatik erregistratu ahal izan zituzten haur batzuk Bergaran?

Herritar batzuen ekimenez, 2007an lehenengo aldiz lortu zuten haur bat euskaraz erregistratzea. Bergarako Erregistro Zibiletan euskarazko Liburu Berezi bat egin zuten (Liburu Ofizialaren berdina, baina ez-ofiziala), haurrak euskaraz erregistra-

tzeko. Bertan, lehenengo aldiz erregistratu ziren haurrak euskaraz. 2008ko martxoan, ordea, Bergarako Epaitegiak kontsulta egin zion Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiari, jakiteko Liburu Berezia legezkoa zen. Erantzunik jaso ez dutenez, Bergarako Epaitegiak ez ditu jaiotza inskripzio horiek onartu, eta euskarazko liburua zabaltzeko aukera zapuztu zuten.

Gauza bera gertatzen da Katalunian eta Galizian?

Ez. Erregistro liburu ofizialak badira katalanez eta galegoz.

Zergatik erregistratu ahal ditugu haurrak euskaraz toki batzuetan bakarrik eta ez toki guztietan?

Orain dela gutxi arte haurrak erregistratzeko modu bakarra zegoen: erregistro liburua erabiltzea. Liburu horiek gaztelaniaz bakarrik zeuden; beraz, haurra gaztelaniaz bakarrik erregistra zitezkeen. 2008ko urtarrilean, EAEko 14 barruti judizial buruetan umeak euskaraz erregistratu ahal izateko aukera ematen duen aplikazio informatiko bat ezarri zuten: inforeg-4. Horren jatorrian, Eusko



Jaurlaritzak eta Res.es Enpresa Erakunde Publikoak sinatutako hitzarmen bat dago.

Horren ondorioz, gaur egun EAEko 14 tokitan haurrak euskaraz erregistratu ahal dira. Hauek dira:

- Gipuzkoan: Azpeitian, Bergaran, Donostian, Eibarren, Irunen eta Tolosan.
- Bizkaian: Balmasedan, Barakaldon, Bilbon, Durangon, Gernika-Lumon eta Getxon.
- Araban: Amurrian eta Gasteizen.

Hitzarmen berria egin behar zen aplikazio informatikoa gainerako bake epaitegietan ezartzeko, baina ez dute berri-itu, eta aplikazioaren zabaltze prozesua etenda dago. Horren ondorioz, udalerririk gehienetan ezin dira haurrak euskaraz erregistratu.

Tolosaldeko 28 herrietatik, beraz, Tolosan bakarrik erregistra daiteke haurra euskaraz.

Zer gertatu da Usurbilen?

Usurbilen, hiru gurasok eskaera egin zuten haurrak herririk bake epaitegian euskaraz

erregistratzeko, eta ezetz erantzun zieten. Hartara, haurrak gaztelaniaz erregistratu dituzte, euskaraz erregistratzeko eskubidea egikartzeko ez baitago aukerarik Usurbilen, beste hamaika tokitan bezala. Hizkuntza Eskubideen Behatokiak, Usurbilgo Udalak eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) babesa adierazi zieten hiru gurasoei, irailaren 23an egindako prentsaurrekoan.

Horrekin lotuta, Usurbilgo Udalak mozioa onartu du gurasoei babesa eman eta behar diren erakundeei kexa helarazteko (Arartekoari, adibidez).

Beste herri batzuetan ere ibili dira eta badabilta gurasoak eskaerak egiten: Tolosan, Santurtzin, Ajangizen, Gernikan, Donostian, Ondarroan, Deban, Uharte-Arakilen, Bilbon, Igo-rrin, Bermeon...

Zer erantzun eman dio Jaurlaritzak eskaera horiei?

Irailaren 23an, Patxi Lopez EAEko Lehendakariak politi-

Irakurle taldea

azaroako tertulia:

Eguna: azaroak 4, osteguna

Ordua: 19:30

Lekua: Tolosako Kultur Etxea (1. solairua)

Irakurri beharreko liburua:
"Antzararen bidea"
Jokin Muñoz

galtzaundi 331
eko urriak 15

ka orokorreko legebiltzarreko saioan iragarri zuen urte bukaerarako bake epaitegi guztietan egongo zela aplikazioa eta haurrak euskaraz erregistratu ahalko direla. Horretarako, toki hauetan probak egiten hasiko dira: Araban, Aramaion eta Guardian; Bizkaian, Bermeon eta Ondarroan; eta Gipuzkoan, Azkoitian eta Zarautzen.

Zer bultzatu nahi dute UEMAK eta Behatokiak?

Usurbilgo bideari jarraiki,

UEMAK eta Behatokiak Hego Euskal Herrian haurrak izango dituztenei honako deia egiten diete: euskaraz bizitzearen aldeko ariketa praktiko bat egiteko eta bake epaitegietan eta erregistro zibiletan haurrak euskaraz erregistratzeko eskaera egiteko. Aldaketarik etortzekotan, guraso euskaldunak aktibatzetik eta euren eskubideak egikaritzeko ahalgina egitetik etorriko da aldaketa. Gurasoen bultzadarik

gabe, zaila izango da aurrerapenik lortzea.

Zer egin behar da?

Laster haurra izatekotan bazara/bazarete, jarri harremanetan Behatokiarekin edo UEMArekin eskaeraren idazkia eskuratzeko eta bake epaitegietan aurkezteko.

- Behatokia: 902 194 332

- UEMA: 943 260 372



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



INDUSTRIARAKO
HONIDURAK

Iparagirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462



Kultur ekitaldiak

Urriak 17

Nafarroa Oinez Atarrabian

Autobusa

Irteera: 09.30ean, tren geltokitik.

Itzulera: 19.00etan Atarrabiatik

Izen ematea: Galtzaundin

Prezioa: 12 € (bazkideak 10 €)

Azaroak 4

Ipuin kontalaria

Idoia Sanchez

Berastegiko eskolan

17.00etan



ANTZA



Mertzeria eta
konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

Onddoak, anitzak bezain aberatsak

Ikusi hutsean erakargarriak dira. Kolore bizikoak eta ilunak. Handiak eta txikiak. Sukaldeak agintzen duenean, beraien zaporeagatik oso preziatuak dira batzuk eta, duten pozoigatik baztertuak besteak.

Onak eta txarrak. Hala bereizten dira sarri, jangarriak diren ala ez esan nahi denean. Onddoek, ordea, plater preziatuak sortzekoz gain, beste erabilpen batzuk ere badituzte pertsonentzako, eta, betebeharrak garrantzitsuak naturarentzako.

Basoan betetzen duten funtzioaren arabera bizikerak dituzte onddoek. Ezberdinak izanik ere, denek materia eraldatu egiten dute. Parasituek landare eta zuhaitz ahulenak erasotu egiten dituzte. Naturaren legea: indartsuenek egiten dute aurrera. Egur eta landare hondarrak materia organikoetan bilakatzeaz arduratzen dira Saprofitoak. Hiltzera doana bizigai bilakatzen dute, beraz, lurrak landareak, zuhaitzak eta onddoak sortzen jarraitu dezan. Eroritako zuhaitzetan topatu ditzakegu, besteak beste. Mikrorizo taldekoak, berriz, zuhaitz eta landare ezberdinekin ura eta mineralak elkartrukatu bizi dira. Batak besteari, hartuz eta emanez. Izan ere, onddoek beste bizidunen beharra dute

biziko badira, oxigenoa besteez gandik hartzen dute-eta. Ugalduta, berriz, esporei esker egiten dira. Beraien ezaugarriak medio, pertsonak landareen erreinutik atera eta fungi erreinuan klasifikatu ditu. Animaliak, landareak,... eta fungiak daude beraz.

Taldeetan sailkatzeaz gain, bere helburuetarako ere ikertu ditu pertsonak onddoak. Esaterako, zuhaitzen eta landareen garapen handiagoa, azkarragoa eta indartsuagoa lortzeko; zenbait onddo eskuratzeko, adibidez, trufak; izurriteak suntsitzeko edo ardoaren, ogiaren eta txerriaren ezaugarriak aldatzeko. Baita medikuntzarako ere. Esaterako, minbiziari aurre egiteko baliagarriak diren ala ez aztertzen ari dira. Medizinarako eta beste helburu

batzuekin, norberaren baitan eragiteko ere erabiltzen dira. Adibidez, sikotropikoak, hau da, gai kimikokiak dituztenak.

Ezagutza ezinbestekoa da, ordea, nahi diren helburuak lortzeko. Dituzten koloreak adinako erabilpenak izan baititzakete. Egokiak, ongi ezagutu eta erabiliz gero. Oso kaltegarriak, ezzagutzaren ondorioz nahastuz gero. Eta horretan, urteak daramatza Pedro Pasaban mikologo tolosarrak. Ikertzen, ezagutzen eta klasifikatzen. Bere esanetan, "paradisu handi batean bizi gara. Klima suabea dugu. Tenperaturak oso gutxitan jeisten dira 0 gradutik edo igotzen dira 40tik. Izugarriko landare aniztasuna dugu. Eta, horren guztiaren ondorioz, onddoak urte osoan eta

klase askotakoak izaten ditugu hemen". Urte osoan baina, batzuk ordu batzuek soilik, eta, besteak, egun eta hilabete luzez. Izan ere, horretan ere oso ezberdinak dira beraien artean onddoak. Onddo beltzak, gibeldurdinak eta xixa horriak, gutxi gora behera, astebeteko bizitza izaten dute.

Pasabanek urte osoan biltzen ditu onddoak ikerketa lanetarako. Ikustearrekin bat bereziak diren ala ez badaki. Onddo ezzagunen bat hartutakoan Aranzadiko bere lagunei erakusten die lehenik, haiek ezagutzen duten ala ez jakiteko. Dokumentazio iturri ezberdinak erabiliz eta froga ezberdinak eginez jarraitzen du ikerketa lanetan. Izan ere, Pedro Pasabanen arabera, "liburu bateko argazki batekin

ezin da perretxiku bat definitu. Are gutxiago, jateko bada. Perretxiku horren ezaugarriak ezagutu egin behar dira. Esaterako, badira euriarekin more bizi-bizi kolorekoak izanik, hego haizearekin kolore ilunekoak bilakatzen diren perretxikuak. Perretxikua non bildu dugun, zer nolako azala eta esporak dituen,... aztertu egin behar da. Jateko bildu behar baditugu, guk nahi ditugun perretxikuaren ezaugarriak jakitea bezain garrantzitsua da, itxuraz bere antzekoak izanik ere, izatez ezberdinak eta, gainera, toxikoak direnenak ezagutzea”.

Azterketa horiek guztiek duten garrantziaren erakusle, ondoko adibidea jarri du Pedro Pasabanek: “persona askok ez dakite gibelurdinen artean mota ezberdinetakoak daudenik ere: batzuk Heterofilak dira, besteak

Cianosantak,... Txapela, hanka,... ustez berdinak izanik, beren haragia berdin mozten den arren, eta, sukaldatu ostean, ustez zapore berdina duten arren, mota ezberdinetako gibelurdinak daude. Sulfato ferrosoa botatzen badiugu ezberdindu egiten dira. Batzuk arrosa kolorekoak jartzen dira eta, besteek, ez dute erreakziorik izaten”. Zorionez, batzuk eta besteak jangarriak dira kasu honetan. Ondorioak bestelakoak izango lirateke, ordea, Amanita phlloideseekin nahastuko bage-nitu.

Jateko baino definitzeko aztertzen ditu perretxikuak Pasabanek, eta, bere hitzetan, sarri ez da erraza izaten perretxikuak klasifikatzea. “Milaka

onddo klase daude. Beraz, haue-tatik guztietatik bereizteko, auke-ra guztiak erabili behar izaten ditugu”. Puzzle bat osatzea bezala da, Pedro Pasabanen arabera, eta, orduak igaro ditzake-te horretan. “Non bildu dugun aztertu behar dugu. Zein den bere ingurunea. Nolakoak diren bere esporak, nola sortzen dituen, nolako zelulak dituen, zein tamainutakoak diren, zer nolako erliebea duten,... Ondoren, onddoaren atal ezberdinetako ehunak aztertu ditzakegu. Puzzle baten modukoa da. Hau badu, hau ez du,... aukera ezberdinak baztertzen aritzen gara, espezie konkretu bate-ra iritsi arte. Makrokimika eta mikrokimika ere erabiltzen ditugu. Zenbait produktu eman eta mikroskopioan ikusiz, zelulek hartzen duten kolorearen arabera sailkatu ditzakegu”.

Ikerkuntza horren guztiaren ondorioz, Tolosan 1994. urtean mundu osoan sekula topatu gabeko onddo bat aurkitu zuen Pedro Pasabanek beste lagun batekin batera. Rhodogaster calongei izena jarri zioten. Onddo berdina berriro ateratzeko, ordea, ekosistema mantendu egin behar da. Ez bada bere ingurunea zaintzen, zaila izango da ezaugarri bereko onddoa ateratzea.

Ildo horretan, amalurrak emandakoa eta pertsonak kontsumitukoaren

arteko harremana aspaldian aldatzen ari da Pedro Pasabanen iritzian. “Garai batean, naturak ematen zuenaren eta pertsonak kontsumitzen zuenaren arteko harremana ez zen orekatua. Balantza naturaren aldekoa zen. Naturak onddo ugari sortarazten zituen eta, horietatik, gutxi batzuk baino ez genituen jasotzen. Hiru-lau bider jan ostean, urte osoan ez genuen onddo gehiagorik jaten. Olio eskasia zegoen gerra ostean. Halaber, ez zegoen frigorifiko edo hozkailurik,... Orditik hona, ordea, basoak ere gutxitu egin dira, landatutako zuhaitzak aldatu egin dira,... Horren guztiaren ondorioz, egun, eskariaren eta eskaintzaren arteko harremana aldatu egin da. Honek guztiak arazo handi bat eragingo du denbora gutxira. Eta, garai batean ehizarekin edo arrantzarekin egin zen bezala, erregulatu egin beharko da onddo bilketak”.

Ildo horretan, kontuan hartzekoa da perretxikuak helduak dauden ala ez. Izan ere, bildutako perretxikua heldua badago, esporak botata izango ditu. Aldiz, txikia bada, perretxiku tokiak zapuzten airtuko gara, ugalketarako ezinbestekoa duten esporen zabalkundea eten egingo dugulako. Eta, kezkatzeko bada arrazoirik: “duela 20-30 urterekin konparatuz gero, espezie bereko klase guztietakoak, ez soilik jatekoak perretxiku askoz gutxiago topatzen dira egun. Momentuz inork ez daki zein izan daitekeen horren arrazoia.”

Pedro Pasaban

“Inguruneari dagokionean, onddo beltza nahiko exigentea da”

Umea zela hasi zen onddoak biltzen Pedro Pasaban tolosarra. Etxean jateko biltzen zituen orduan. Urteek aurrera egin ahala onddoak ikertzen hasi zen. Egun, Aranzadi zientzia elkarteko kidea da eta, hitzaldia eskainiko du datorren ostegunean, hilak 21, 20:00etan, Tolosako Idiakez jau-regian.

Zer da onddoa?

Guk hartzen duguna onddoaren fruitua da. Kaleko hizkuntzan onddoa deitzen diogun arren, onddoa lurlean, zuhaitzean,... geratzen da.

Ilargiak zer nolako eragina du onddoengan?

Iritzi ezberdinak daude. Frantses batek 25 urtez jarraitu zuen ilargiaren eta onddoen arteko harremana, eta eragin zuzenik ez duela ondorioztatu zuen. Ilargiak, ordea, haizean, eurian,... eragiten du, eta hauek onddoaren eragiten dute.

Jateko, onddo beltza oso gutzitarra da. Perretxiku berezia al da?

Onddo beltza ez da edozein lekutan hazten. Zuhaitz,... jakinak behar ditu. Halaber, temperatura jakina behar du. Ez da tenperaturara baxuekin edo altuekin ateratzen. Inguruneari dagokionean, beraz, nahiko exigentea da.

Zein ezberdintasun dago hemengo eta kanpoko onddoen artean?

Teorian, bat bera ere ez. Prak-

tikan, kontsumitzeko bada, kontserbatzen zenbat denbora igaroden eta nola egin den, lurreko mineralak, gatzak, alkalinitasunak,... zaporean, aroman,... eragin dezakete. Gauza bera gertatzen da, esaterako, babarrunarekin. Tolosako babarruna Extremaduran landatuz gero, babarruna bera izango da, baina zapore ezberdina izango du. Ezberdintasuna, beraz, lurlean, uran eta kliman dago, baina, espeziea bera da.

Onddo beltzak biltzeko, urte oparoa izango al da?

Ez dut uste urte ona izango denik. Orain arte ez da askorik egon, eta denbora aurrera doa. Euria egin ostean, denboratxo bat behar izaten dute ateratzeko, eta hoztu egiten badu, oso denbora motzean jaso beharko dira. Agian, denbora gutxian asko aterra daitezke, baina ez da hilabete ezberdinetan jaso ahaliko den urtea izango. Udan euri asko egiten badu, hondartzazaleentzat txarra izaten da, baina, onddozaleentzat ona izan daiteke.

Perretxikuak jaterakoan jarraitu beharreko gomendiorik?

Perretxikuak –jateko diren guztiez mintzo da- jan behar dituenak hainbat puntu hartu behar ditu kontuan. Batetik, perretxiku espezie jakin bat sekula probatu gabekoa bada, gutxi jateko gomendatuko nuke, pertsona batzuegan eta besteengan eragin ezberdina izan dezakee-

lako perretxiku berak. Halaber, orokorrean ere, perretxikuak neurritz jan behar dira, digeritzeko zailak izaten dira-eta. Gainera, perretxiku batzuk neurritz kanpo janda toxikoak dira. *Tricholoma equestre*, zaldunen perretxiku moduan ezagutua ere, aprezio handikoa zen bere garaian. Udazken-negu partean agertzen den hori koloreko perretxikua da. Ikerketa batzuen ostean, kantitate handietan janez gero hilgarria ere izan daitekeela ondorioztatu da. Sardexka bat janez gero, ordea, bere toxinak ez du ondoriorik eragiten. Perretxikuak bildu behar dituenak jaso behar dituenak ezagutzeaz gain, bere antzekoak direnak ere ezagutu egin behar ditu, eta, jateko onak eta txarrak direnak ez ditu saski berean nahastu behar. Azkenik, perretxikuak jatearen ondorioz, ondoeza,... sentituz gero, ahalik eta azkarren joan behar da medikuarengana.

Errezetaren bat emango diguzu

Perretxikuak oso gutxitan jaten ditut, eta, gainera, oso klasikoa naiz. Onddo-nahaskia jaten dut gehienetan. Gibelurdinak, robelloiak... badira, berriz, baraxuri xehatu

pixkat, gatza eta olioak botatzen diet. Irin pixkat ere botatzen diet, hezetasuna mantendu dezaten, eta uhin labean izaten ditut, 650 gradutan, bost minutuz. Azken finean, praktikotasunari eta azkartasunari begiratzen diot, ikerketa lanetan jarraitzeko denbora izateko.





Denboraldi ga^zi-goza Basagainen



Xabier Peñalver Aranzadi Elkarteko arkeologoak zuzenduriko indusketa lanen 15. denboraldiari amaiera eman zitzaion iragan irailaren 30ean. Aurtengoan 15 egunez baino ez dira aritu lanean aurrekontu murrizketa jasan dutela eta. Urtea aztertu nahiarekin Anoetako ikerketarako lurretara jo dugu informazio eske.

Naiara Roldán de Aránguiz

Egunak oraindik argitu ez duen horretan arkeologoak 4x4ean igotzen dira Burdin Aroak utzitako aztarnak desestaltzeko intentzioarekin, bi egun baino ez zaizkie geratzen berriro ere 15 egun hauetan burururiko lana plastiko beltz handi batzuek estaltzeko. Horrela eta lur poltsekin estaliko dute, hurrengo urteari begira bertan landaredia hazi ez dadin. Peñalverrek azaldutakoaren arabera ikerketa lan-talde hau sistema natural honen aldeko da: "zenbait tokitan erabiltzen dituzten belar-hiltzaileen erabateko aurkari gara".

Basagainek Madril, Bartzelona, Valentzia edo Palentzia bezalako lurraldeetako bizilagunak erakarri ditu aurtengo den-

boraldian; batzuentzat lehen aldia izan eta beste batzuek ordea errepikatu egiten dute urtetik urtera. Gehienak arkeologo tituludunak dira, batzuek doktorego tesia egina dute eta beste batzuk ordea arkeologia ikasketak burutzen dabilta. Guztiek ordea arkeologia abiapuntu dute, lanbide eta zaletasun.

Diru laguntza murrizketak ez ditu ikerlariak lanik gabe utzi; iaz garai hauetan Gipuzkoako Foru Aldundiak zalantzak izan zituen diru-laguntzak eteteko baina azkenean Basagain zabalik mantentzea lortu dute, Anoetako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirua jasoz. Iaz Aldundiak proposatutako planteamenduari aurre nola egin behar izan dioten gogoratzen du Peñalverrek: "garai zehatzetako indusketak ixteko ikuspuntua erabat desegokia iruditu zitzaidan, baheketa bat. Ikerketa proiektu hauek moztea, Gipuzkoako garai hau ezagutzeko Europako unibertsitate ezberdinen lankidetzaz dagoenean, zentzugabekeria zela iruditzen zitzaidan. Proiektu hauekin jarraitu beharra zegoe-la irmo defendatu genuen".

Indusketa lanekin jarraitu ahal izateko urtean zehar arazo ezberdinei aurre egin behar izan badiete ere 2010. urteak saria ere ekarri du, aintzatespen urtea izan da; Basagaineko aztarnategia Buruntzakorekin batera Kultura Ondasun izendatu dute.



Xabierri berria nola hartu zuten galdetzerakoan baikorki erantzun zuen: "babesteko planteamendua funtsezkoa dela iruditzen zait; babesik egon ezean ez da ikerketarik egongo, ez da indusketarik egongo. Babesa eta aintzatespena oso positibotzat hartzen ditut".

Babesa erabat beharrezkoa dela zehazten du arkeologoak eta horren aurrean ere gaiak kexa bat luzatzeko bidea ematen dio: "harresiaz bestaldera 10 metroko babes gunea zehaztu dute, hauek ukaezinak dira, baina metro kopuru hau argi eta garbi gutxiegi da". Tarte hori luzatu dezaten alegazioak aurkeztu badituzte ere ez dute eskatutakoa momentuz lortu.

Basagainek 15 urte hauetan lanean jarduteko arazorik ez du izan, Anoetako Udala eta herria beraren jokoera Peñalvarren hitzetan "eredugarria" izan da. Udalak hasieratik konpromisoa hartu zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera lursaila erosi, bertan zegoen pinudian kontrolpeko baso-mozketa egin, urtean behin landarediaren garbiketa burutu, argibide-panelak ezarri, Udalak bere armarrria ere aldatu egin zuen, Basagain herrixka bertan jaso-

tzeko... Baina oraingoan gertakizun gazia jaso dute; bisitariei argibideak emateko ezarrita dauden sei paneletatik bat ehirarako eskopetaz erabat hondatuta agertu da.

Xabier Peñalvarrek gertatutakoa gogor salatu du: "panela hondatu, zulatu dute; eskopeta-kartutxoak panel ondoan utzi dituzte burututako heroitasuna erakusteko. Gertatutakoa salatzea da; Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Anoetako Udalari jakitera eman diogu. Inguruan ehizarako postuak daudela kontutan izan beharra dago. Jendeak gertatutakoa jakin behar du". Ekin-tza hauen aurrean arkeologo taldeak bere lanarekin jarraitzea du eman dezakeen erantzunik zentzuzkoena, aurkikuntzekin jarraitzea.

2010. urte honetan indusketa lanak logela egiturak dauden zonaldean egin dituzten aurkitutakoa aurreko urteetako jarraipen eta baieztapena izan da: eraikuntza materialak, burdin elementuak, arma piezak, zeramika, ikaztutako haziak, apainketa elementuak... Azken hauek egiaztatu egin dute Basagainen maila altuko merkataritza jarduera, sofistikatua, bu-

rutzen zela, Europako lurralde ezberdinekin.

2010. urteak ekarritako beste gozoetako bat iragan urtean Basagaineko indusketan parte hartutako arkeologo batek bertan oinarritutako ikerketa egin, tesina bihurtu eta Euskal Herriko Unibertsitateko notarik altuenarekin defendatu dela.

Honen guztiaren aurrean Basagainek hurrengo urteei begira jarraipena izango duela argi dauka Xabier Peñalver jakitunak: "momentuz arkeologia ikerketan murgildurik gaude, informazioa, ahalik eta datu zehatzenak, eskuratzen ondoren jendaurrean aurkeztu ahal izateko. Liburuki ezberdinek osatutako behin-behineko txostena aurkeztu diogu Anoetako Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari".

Azkenik, etorkizunari begira Basagain balioan jarri eta publiko orokorrari erakusteko aukeraz galdetu diogu Peñalverri. Berak ondorengo erantzunarekin hurrengo denboraldia arte Basagain agurtu zuen: "honelako aztarnategiak balioan jartzea oinarritzkoa da; ez dugu aukera hori baztertzen baina momentuz arkeologia ikerketan murgildurik gaude".

Beti Niri
galtzaundi

Garaian garaiko janariak eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886-943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259-943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615-943 671 149

Arteka

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577



Eskola hiztun bila

Tolosako Leidor Aretoan euskal ikastetxeetako euskara teknikariak bildu ziren Ulibarri Programaren baitan antolatutako “Eskola Hiztun Bila XIV. Jardunaldietan”. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatutakoan bi lanegunetan, zazpi saio ezberdinen bitartez hizkuntza normalkuntzaren baitan sakontze ikastaroa burutu zen.

Naiara Roldán de Aránguiz

Euskararen erabilera ikastetxeetan hedatzeko helburuz gaia alor ezberdinetik jorratu zuten eragile ezberdinek -hizkuntzalari adituek, irakasle zein ikasleek-. Gazte-hizkerak eta idazkera berriak XXI. mende-hasierako euskaldunen artean; Irakasleen eginkizuna ikasgelako elkarreraginean; Nola irakatsi ahozko komunikazioa eskolan?; Gazteen hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreen azterketa; Gazteen erabileraz zer diote ikasleek?; Gazteen erabileraz zer diote irakasleek? eta irakasleen ikasleekiko sentimenduak, emozioak kontzientegitearen bidea bezalako gaiak izan zituzten aztergai



eta mintzagai Tolosako jardunaldietan parte hartutakoek.

Ulibarri programa, ikastetxeen hizkuntza normalkuntzan jarduteko programa, 1996an abian jarri eta gaur egun 400 ikastetxe inguru ditu bere baitan. Iragan irailaren 27 eta 28an Leidorren beste horrenbeste entzule bildu ziren euskara ikastetxeetan entzutetsuago bilaka dadin. Sarrera ekitaldian Mikel Zalbide hizkuntzalari eta soziolinguistak aurkezpen lanak egin eta jardunaldiei hasiera eman zioten Tolosako Alkateak, Jokin Bildarratzek, eta Julen Bengoetxeak, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak.

Julen Bengoetxeak hizkuntza, papera ez dela aipatu eta hizkuntzaren erabilpenari eman zion garrantzi, euskara mintzamenaz zabalduko dela argudiatuz. “Gazteek ez dute euskaraz hitz egiten” baieztapena luzatu eta egoera hori bera oso aldakorra dela ere



Kike Amonarriz

Gazte hizkerak eta idazkera berriak XXI. mende hasierako euskaldunen artean

Kike Amonarrizek ikasleek euskaraz trebatzen ote diren edo ez galderari era baikorrean erantzuna eman zion, bere gaztetako garaia gogora ekarriz: “Gure garaian ez genuen euskaraz akatsik egiten, dena gaztelaniaz egiten genuen eta”.

Egoera honen aurrean nabarmen da datuak zeharo aldatu direla. Horregatik Kike Amonarriz hizkuntzalariak egungo egoeraren azterketa proposa-

mena luzatu zuen, ageri diren tribu berriak eta ez horren berriak mahai gainera ekarriz. Euskaldun egoera anitzak daudela ezin ukatu, Amonarrizek aurkeztutakoak guztiak ote diren ezin baieztatu baina sailkapen bakoitzean pertsona bat baino gehiago kokatzeko gai garela zalantzarik ez. Bakoitzak bere burua aztertu eta umorea jarriz ondorengo zeinekin identifikatzen den saihestezina da.

Izen esanguratsuak, inor axolagabe uzten ez dituztenak: Euskal Herrian en erderaz y vale!, Kaixumuxumuxu, Kutsidazu bidea XBL!!!, Euskañola naiz eta harro nago, Besterik ezagutu ez eta... “Xuxen”!, Euskalhirimix, Gukolaitzeittedeu, Gure amaren euskerea defendatuko dot!, Bat egin dezagun! eta Erasmuslariak.

Izen bakoitzak euskararekiko egoera zehatza azaltzen du; oso giro erdaldunetan bizi direnak, euskara apaingarri gisa ikusten dutenak, gunerabat erdaldunetan bizi baina euskaraz bizi nahi dutenak, euskalkirik eurenaren ez eta euskalkien arteko nahasketa egiten dutenak, arauak ezagutu arren nahi bezala egiten dutenak, euskara batua baino ezagutzen ez dutenak, euskalkia baino defendatuko ez dutenak, atzerriko hizkuntzez zipriztintzen dutenak...

Egoerak milaka izanda hiz-

kuntza komunitatea etengabe aldatzen doa, zergatiak ezin atzamarrekin zenbatu baina gizarte aldaketak zerikusi handia du horretan. Eredu sozialak aldakorrek dira eta horrek ere hizkuntzan eragina dauka, Amonarrizek azaldutako adibidean oinarrituz, garai batean gazteak bikote bihurtzerakoan hikaz hitz egiteari utzi egiten zioten, gaur egun ordea zer da bikote izatea?

Teknologia berriek ere komunikatzeko era erabat moldatu dute, mugikortasunak eta globalizazioak bestelako herrialdeekin harremana aldatu dute, emigratioak hizkuntz panoraman ere bere eragina izan du, orain arte elebidunak izan bagara aurrerantzean eleanitzak izango garela kontutan hartu behar da bestelako ehunka faktoreekin batera. Aldagai hauek guztiak eragina dute euskararen erabileran eta etorkizunari begira Amonarrizek dioenaren arabera “normalizazio prozesua eta erabilera dinamikak arrakastaz bideratu ezean, euskara hizkuntza dekoratibo bihurtzeko arriskua dugu”.

Hala ere, egoerari baikortasunez erantzutea baino ez du ikusten tolosarrak eta etorkizunari begira beharrezkoak ikusten ditu interbentzio politikoak eta gizartearen aldeko jarrera aktiboak ere.





erakutsi zuten Tolosaldeko gazteek. Jardunaldiek gogoetarako bidea balioko zutela iritzi zuen Bengoetxeak eta horrela gertatu zen ondoren eskainitako hitzaldi, mahainguru ezberdinen bitartez. Amaitzeko, Bengoetxeak erabileraren aldeko aldarrikapena egin zuen Axularren hitzak bereak eginez: "dabilen harriari goroldiorik ez".

Jokin Bildarratzek, Tolosako alkateak, ordea bere esperientzia pertsonala gogora ekarri eman nahi izan zion hasiera "Eskola Hiztun Bila" jardun-

aurrera eramateko motorra zarete". Bildarratzek politikariek hezkuntzan duten botere eta ahalmena zantzantzarri eta irakasleak euren gidari eta aholkulari izatearen aukeraz mintzatu zen, politikariek darabilten hezkuntza ereduaren eztabaidak ezbaian jartzearaino: "gure lana legedia aprobatazea da, beste lan guztiak zuenak dira".

Tolosan ikasleen hezkuntza-ereduen mapa

Jokin Bildarratzek Tolosan ikasleak matrikulatuta daudenen hezkuntza-ereduen mapa marraztu nahi izan zuen, 90.eneko datuak eta gaur egungoak parez pare jarritz. 1990ean Tolosan ikasleen %43a A ereduari matrikulatuta zegoen, %7a B ereduari eta gainerako %49a D ereduari. Gaur egun ordea 4.500 ikasleek D ereduari burutzen dituzte euren ikasketak; A eta B ereduari ordea ia inork ez, hurrenez hurren %0,06 eta %0,09.

Euskararen erabilerari dagokionean ordea 0 eta 14 urte bitartekoaren artean %53an kokatzen zen eta 15-24 urte bitartekoaren artean %31n. Gaur egun egoera aldatu eta datu horiek nabarmen gora egin dute, 0-14 urte tartean %25 eta 15-24 urte tartekoaren artean %20 egin du gora euskararen erabilpenak.



diei, Anoetako ikastetxean 1997a arte irakasle izandako eguneko normalizazio lanak aipatuz. Aretoan bildurik zeuden irakasleen lana ere gorai-patzeko aukera ez zuen galdu nahi izan: "zuek normalizazioa

Gazteen erabileraz zer diote ikasleek?

Leidorreko oholta gainera hizkuntza adituena eta irakasleentzako beraien iritzia entzuteaz gain ikasleentzako beraien usteak ere entzuteko aukera egon zen. Esparru eta egoera ezberdinak ordezkaturik egoteko intentzioarekin lau eskualde ezberdin aukeratu ziren alde aurretik mahai inguruan parte hartu ahal izateko: Irungo Toki Alai BHI (Bidaxoa); San Adrian BHI (Bilbo); La Pueblako Assa (Arabako Errioxa) eta Orixe BHI (Tolosaldea).

Bertan plazaratutako ideiak alde aurretik ikastetxean landu izan ziren *work cafe* delako formularen bitartez. Ikastetxe bakoitzetik ikasle bikote batek parte hartu zuen, guztira lau mutil eta lau neska irakasle aurrean euskararen erabileraz mintzatzen. Eskualdeei eta genero kontuei erreparatu gero, hautaketa orekatua aurkeztu bazen ere euskararen erabilerari zegokionean behintzat, ikasleek beraien aitortutakoaren arabera; argi geratu zen Tolosaldean baino ez dutela gazteek egunero euskara erabiltzen.

Ezagupen datuek eta gazteek etxean jasandako euskararekiko egoerak ere arrastoa uzten du ondorengo erabilpenen. Esaterako, Bidaxoan %12en gurasoek euskaraz jarduten dira; Bilbon ordea %70en gurasoek ez dira gai euskaraz komunikatzeko; Arabako Errioxaren kasuan egoera berdina gertatzen da %80an eta Tolosaldean ordea egoera erabat bestelakoa

da, ia gehienak euskaraz hitz egiten dute, euren etxeko hizkuntza dute.

Ikasleei aurkeztutako galderen artean ikastetxean euskaraz mintzatzen ote diren planteatu zitzaizkien, La Pueblako Assa ikasleentzako artean euskaraz egiten ez bada ere irakasleekin euskaraz komunikatzen dira gazteak. Irunen eta Bilbon ordea, ikasleentzako artean euskararik ez eta ezta irakasleekin hitz egiteko ere.

Tolosaldeko gazteek hasieratik argi utzi nahi izan zuten Tolosan ikasten bazuten ere, Imanol Irazustabarrena eta Ane Garmendia, berez baliarraindar eta alegitar zirela hurrenez hurren eta euren egoera erabat bestelakoa zela: "normalena euskaraz hitz egitea da, arraroa da jolastorduan erdaraz entzutea. Euskara da nagusi eta zaila da erdaraz jardutea eskolan eta eskolaz kanpo".

Ikastetxean euskaraz mintzatzen ez badira ikastetxetik kanpo ere ez dute egiten Arabako Errioxako, Bilboko eta Irungo ikasleek. Zergatiak ezberdinak izanda: Arabako Errioxan aukerarik ez dutelako, Bilbon eta Irunen ohiturarik ez dutelako, euren esanen arabera.

Aisialdiari dagokionean Tolosan ekintza gehienak euskaraz egiten dira -irakurri, antzerkia, kontzertuak- zinea izan ezik; beste ikasleek ordea gehien bat gaztelaniaz dibertitzen dira. Arabako Errioxako ikasleentzako kasuan aitortu zuten ezin dutela ezta telebista euskaraz ikusi,

ETBko seinalerik ez dagoelako eta Irungo neskek ere gazteentzat telebistan euskarazko programaziorik ez dagoela kexu ziren. Gehienek ordea harro aitortu zuten *Tuenti* euskaraz konfiguratuta zutela baina ez ordea zein hizkuntzetan komunikatzen ziren euren *tuenti*-kideekin.

16-17 urte inguruko gazteei, gazteago edo umeago zirenean zein hizkuntza erabiltzen zuten ere luzatu zitzaizkien; etxeko egoerei erreparatu eta gogora ekarri, gehienak euskaraz aritzen zirela aitortu zuten. DBHn edo zertxobait lehenago muga topatu zuten gehienek: "handiek egiten zutena egiteko".

Hemendik 3-4 urtera begira ikasle hauek euskararen erabileraren egoera nola ikusten duten galdetu eta ondorengoan izan zen euren erantzuna. Bilbon berdin mantenduko dela, talde txiki batek lanerako beharrezkoa ikusi eta EGA ateratzeko lanean arituko da. Arabako Errioxaren kasuan pentsaera ezberdineko jendea dagoela aitortu zuten, batzuek ezertarako balio ez duela uste badute ere beste batzuek kaleko euskara ezagutu eta euskal zonaldeetara joko dutela uste dute. Bidaxoan jende ugari kanpora ikastera joan eta orduan aintzat hartuko dutela uste dute. Eta azkenik Tolosaldeko ikasleentzako kasuan ustetan berdin mantenduko da euskararen erabilera, baina orain baino euskara jatorragoa eginez.

URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreo, 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa


GORRI

Paper manipulaziorako makina eraikuntza eta mantenimenduak

Konponketa eta mantenimenduak

Apata industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa

San Estebango anbulatorioa toki faltan da

Medikuntza orokorreko familia mediku Javier Hernando eta Helena Zubillaga pediatriarekin elkartu gara medikuntzak bere egunerokotasunean dituen erronkei buruz hitz egiteko. Gaur egungo bizimodu azkarrak, estresatutako bi urteko haurrak edo gaixotasun psikosomatikoak jotako pazienteak ugaritu egin ditu eta, medikuek erantzun egin behar diete horrelako egoerei, pazientearekiko harreman estua sortuz. Tolosako San Estebango anbulatorioan osasun zerbitzu zabala eskaintzen da. Azken urteotan izan den zerbitzu hazkundea dela eta San Estebango anbulatorioa txikia geratu da.

Felix Aiestaran

Zein zerbitzu eskaintzen ditu San Estebango Anbulatorioak?

(Javier Hernando) Medikuntza orokorra, pediatria eta oraindano emagina bertan egon da. Odol ateratzeak eta elektrokardiograma besteak beste bertan egiten dira. Larrialdi zerbitzuak pisu handia du eta anbulatorioa hogeita lau orduz zabalik egoten da.

Zertan datza pediatra lana?

(Helena Zubillaga) Haurren osasun kontrol ugari egiten ditugu. Hasieran hamabostero hartzetik, bi urtetik aurrera

asko gutxitzen dira bisitaldiak, baina hamalau urte arte jarraitzen dute. Bestetik izaten diren diarrea, katarro, sukarrak... tratatu behar ditugu. Haurren arnas bide arazoak, infekzioak eta baita gora-behera emozionalak ere. Bi urteko haurrek eskola hasiera dela eta estresatuta etortzen dira. Gizarteak asko eskatzen die haurrei, hamalau urteko umeak porrot eginda daude.

Zein da familia medikuaren lana?

(JH) Betiko gaixotasunak tratatzen ditugu: infekzioak,


artikulazioak, hezurak... Baina gero eta gaixotasun kroniko gehiago dago: diabetesa, hipertentsioa, bronkioak... eta gero eta Alzheimer moduko endekapenezko gaixotasun gehiago ere. Gaixotasun perfila aldatzen ari da. Gaixoen %50a arazo psikosomatikoekin etortzen zaigu. Gaitzak oinarri fisikoa izanda ere, askotan gaixoaren psikologiak zama handia izaten du. Gaur egun, lehen mailako prebentzio lanari garrantzi handia ematen diogu. Jendeari gaixotu ez dadin ohitura aholkuak ematen dizkiogu: ez erretzea,

kirola egitea, elikadura osasuntsua mantentzea...

Gaixoarekin sortzen den harremana berezia izango da, ezta?

(JH) Pazientearekin harreman berezia dugu. Urteetan bera eta bere familia ezagutuaz argazki osatua izaten dugu. Gertutasun handia izaten dugu.

(HZ) Familia



gurasoak eta haurrak dira eta denak dira garrantzitsuak eta denak ikusten saiatzen naiz. Harreman estua osatzen da haurraren hamalau urtetan guregana askotan jotzen dutelako. Gaur egun, edozein gauzatzorekin pediarrarengana jotzen da. Haurrak gurasoentzako altxor bihurtu dira. Garai batean ez zen horrela, baina berdin-berdin maite gintuzten gurasoek. Lehen, erabaki gehiago hartzen ziren etxean, osasun aldetik. Gaur egun, informazio gehiago dago baina medikuarengana jotzen dugu. Garai batean, pediatra luxua

zen, kamamila hartu eta kitto: sendatu egiten ginen.

Egunero, egoera ezberdin ugari erantzuna eman beharko diozue, horrenbeste gaixo hartzean, ezta?

(JH) Ikerketa batzuen arabera, gure kontsultatik ia biztanleriaren %100 pasatzen da bost urtetan eta horietatik %90 baino gehiago hiru urtetan pasatzen da. Guztiei erantzuten jakin behar da. Tolosako biztanleria osasuntsu dago; badi-ra ekonomikoki hondatuagoak diren eskualdeak eta honek eragina izaten du osasunean ere. Nik 2.200 lagun artatu izan ditut eta oraintxe 1.600 hartzen ditut. Hemengo agintariek bidea 1.500 gaixo artatzea dela esan dute.

(HZ) Pertsona bakoitzaren ezaugarriez gain, gaur egun familia asko aldatu da: dibortziatuak, homosexualak diren bikoteren batzuk, intseminazioaz bikotekiderik gabeko amak... aldaketa handiak izaten ari dira. Familia

bakoitzak funtzionatzeko bere ereduak dituenaz, gaixotasuna bizi eta aurre egiteko bere modua izaten du. Nik 1.400 lagun artatu behar ditut eta Europako ratioa 800ekoa da.

Entzuten denez mediku eta erizainen falta dago... Zer dela eta hori?

(HZ) Medikuntza ikasteko, aurtengo nota bederatzitik

gorako batz bestekoa eskatu dute... Pediatria garai bateko lorpena den heinean, gaur egun desagertu arazi nahi dute. Ospitale espezializatuetara zokoratu nahi dute pediatra.

(JH) Gure garaian espezialitatea bukatu ondoren, lana izateko pixka bat itxaron behar izaten zen. Gaur egun, Gipuzkoan ordezkapenak eta udan lan egiteko ez dago ia mediku, pediatra, anestesista edo emaginik... Planifikazio falta izugarria izan da. Beharrak ere asko ugaritu dira. Bestetik, esan beharra dago osasungintzako langileok gero eta hobeto egiten dugula lana. Horrek, gaixoen asebetetzean eragiten du.

Noiz eraiki zen San Estebango Anbulatorioa?

(JH) Duela hamazazpi urte





"Pertsona bakoitzaren ezaugarriez gain, gaur egun familia asko aldatu da".

eraiki zen. Ordudanik, langile kopurua %25ean hazi da. Gaur egun berrogeita bost langile inguru gaude. Orduan, arratsaldeko bostetatik goizeko zortziak arte larrialdiak ambulatorio zaharretik hartzen ziren. Duela zortziren bat urte, la-

rrialdi zerbitzu hori hona pasatzean, egongela txikiagotu eta hiru logela egokitu ziren.

(HZ) Bi pediatratik hirura, zazpi edo zortzi medikutik hamarara pasa gara eta umegin zerbitzua eta odol ateratzeak

ere gehitu zitzaizkion eta hauek bere tokia behar dute. Ambulatorioa egiteko erabili zen material kaxkarra dela eta kontsultak labeak bihurtzen dira.

Zein berezitasuna du Tolosaldeko osasun zerbitzuak?

(JH) Gipuzkoako beste inongo eskualdean ez bezala, Tolosaldeko Eskualdeko Ospitalerik ez dago, kontzertatua baizik. Bestetik ambulatorio zaharra Donostiarekin lotura du. Nahaste-borrastea sortzen da, baina hemengo arazoa, gero eta zerbitzu gehiago egonik tokirik ez izatea da. Artxiboak toki guztietan sakabanatu dira, administratiboentzat ez dago toki egokirik, pediatra ez dakigu non sartuko den... Ez da arazo berria, aurreko zuzendaritza, azpian dugun eskualdeko biltegiarekin irtenbide bila aritu zen... Biltegia beste lokal batera eraman eta ambulatorioko zerbitzu desberdinentzat tokia egiteko asmoa zegoen. Arazoa

gero eta nabarmenagoa izango da. Gure jasangarrtasuna gero eta txikiagoa izango da. Hiru profesional kontsulta batean aritzeak, bata bestearen atzetik sartzeko txandaren zain egon beharra esan nahi du eta horrek egonezina sortzen du.

Irtenbiderik bilatu al duzue?

(JH) Guk birmoldaketa proposamenak ere egin dizkiogu zuzendaritzari; begiratu, neurtu egin izan dute, baina ez dugu konponbiderik izan, oraindik. Irtenbidea zentro berria edo birmoldaketatik etorriko da, baina oraingoz, azpian dugun eskualdeko biltegia beste toki batera eraman eta bertan moldaketak egitearekin konpon genezakeela uste dut. San Esteban Auzoko plangintza berrian, dirudienez, dena bota egingo dute gure ambulatorioa izan ezik. Une egokia izan daiteke konponbide baterako. Osakidetza eta Udalak hitz egiteko une egokia izan daiteke.



"Gizarteak asko eskatzen die haurrei, hamalau urteko umeak porrot eginda daude".



Amaia Etxetxia
Nutrizio aholkularia

Azken urte hauetan maiz entzuten dugu elikagai prebiotiko eta probiotikoei buruz. Baina ba al dakigu zer diren? Esanahi berdina al dute? Ziur baktek baino gehiagok honelako zalantzak dituela, eta horregatik gaur saiatuko gara azaltzen zer diren eta zertarako erabiltzen diren.

Koxk!

Prebiotikoa edo probiotikoa?

Zenbait elikagaiek, nutrizio ezaugarri onuragarriak izateaz gain, osasunarentzat ere mesedegarri izaten dira, eta hauek elikagai funtzional bezala eza-gutzen dira. Elikagai funtzional hauen barne, bai prebiotikoak eta bai probiotikoak sartzen dira.

Elikagai prebiotikoek, digeritzen ez diren substantziak dituzte; hauek, gure hesteetako floran dauden bakterioak suspertzen dituzte eta organismoaren funtzio askori on egiten diete. Izan ere, hesteetako bakterio onuragarrien hazkunde selektiboaren mesedetan dihardute.

Hauen artean ezagunenak oligofruktosa eta inulina fruktooligosakaridoak (FOS) dira. Eta non aurkitu daitezke? Baratxuria, tipula, porru, zainzuri, orburu, tomate, pinaburu eta beste zenbait elikagaietan.

Eta zergatik dira hain aipatuak elikagai mota hauek azken urteotan? Elikagai funtzionalak zenbait produktuetan merkaturatzen dira, hainbat esneki, edari, haurrentzako elikagai eta galletetan.

Izan ere, adituek egunean

2-6 gramo hartzea gomendatzen dute, baina azterketek diotenez, badirudi egunean 800 miligramo FOS bakarrik kontsumitzen direla. Gero eta garbiago dago oso garrantzitsua dela dieta orekatu bat izatea gure osasunaren onerako eta honelako elikagaiek bere eragina dute gerora izan daitezkeen minei aurre egiten.

Hau ulertu ahal izateko, aipatu dugu, gure digestio aparatuko bakterio mota asko dituela. Batzuk mesedegarriak dira, baina beste batzuk patogenoak, hau da, kaltegarriak, eta hauen ondorioz sarritan organismoaren zati desberdinetan gaixotasunak sortzen dira. Eta zer da gertatzen dena? Ba hesteetan dauden bakterio multzo zehatz batzuk, elikagai moduan erabiltzen dituztela organismoak digeritzen ez dituen substantzia hauek. Honela, organismoari on egiten dutenen portzentajea handitu daiteke, eta heste-flora agresiboena murrizten da.

Probiotikoei dagokionez, elikagai gehigarri moduan hartzen diren bakterio bizidun produktuak dira, eta heste-florako bakterioetan eragin positiboa

daukate. Heste lodira bizirik helitzen dira, bere funtzio onak han betez.

Hauen artean, laktobazilo eta bifidobakterioak daude, eta elikagai hauetan aurki ditzakegu: batez ere esne hartzietan, jogurta eta gaztetan.

Digestioa osorik ez egitean eta mikroorganismo-populazioa eraldaturik baldin badago, substantzia kaltegarriak gure organismoan sartzeko arriskua dago eta horren ondorioak era askotakoak izan daitezke: hantura, haizeak, beherakoa, zoldurak eta areago, alergia eta intolerantziak. Hemen dute bere garrantzia, hesteen osasunaz arduratzen diren prebiotiko eta probiotikoak.

Ikerketa askok frogatu dute, prebiotikoek kaltzioa, magnesioa eta burdina xurgatzen laguntzen dutela eta horri esker hezurren trinkotasuna hobetu daiteke eta osteoporosiari aurre hartu.

Bestalde, profil lipidikoa hobetzen laguntzen dute eta triglizerido maila altuak jaisten; horrek gibekeko metabolizazioa hobetzen laguntzen du. Gluze-

mia hobeki kontrolatzen laguntzen dute eta kolesterolarekin erlazionatutako eraginak ere azaldu dira; baita ere idorreri kronikoa hobetzeko. Badirudi ere, kolon minbiziaren prebentzio moduan ere lagungarri direla.

Ezinbestekoak al dira? Kasu gehienetan elikagai anitzetan oinarritutako dieta orekatu bat nahikoa izaten da mesede gutti hauek eskuratzeko. Egoera batzuetan, mesedegarri izan daitezke, adibidez, dieta bera nahikoa ez denean, osasun arazo batzuk hobetzeko; adibidez, bakterio-flora berreskuratzeko, sabeleko arazo batzuen ondoren (haizeak, beherakoak etab.).

Baita ere, prebiotikoak dauzkaten elikagaiak dietan sartzen ez ditugunean; adibidez, intolerantzia baten aurrean, atsegin ez ditugulako, edo bestetan alferkeri hutsez: askok dioten bezala, frutaren kasuan esateko, gustukoa izanik "alferkeri kontuak".

Uxue Fernandez Lasa "Federatu mailako pilotari kopurua"

Duela sei urte emakumeek pilota munduan egiten zuten lanari bultzada emateko asmoz Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak Emakumea Pilotari Egitasmoa martxan jarri zuen. Ekimen honi buruzko nondik norakoak eta Tolosaldean zehazki aurrera eramandako jarduerak ezagutzeko asmoz Uxue Fernandez Lasa, Emakume Pilotari proiektuko komunikazio arduradunarengana jo du Galtzaundik.

Erredakzioa

Nola jarri zen martxan Emakumea Pilotari Egitasmoa?

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, emakumeek pilota munduan duten parte hartzea sustatzeko asmoz, 2004ko abenduan abian jarritako egitasmoa da, hasiera batean, behintzat emakume federatuen kopurua gainbeherari aurre egin asmotan. Hala ere, plangintzaren hasierako diseinutik jorratu dira hiru arloak: eskola kirola, partaidetzako kirola eta kirol federatua.

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren proiektu honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa eta Gipuzkoako hainbat udalen laguntza ere jaso zituen hastapenean, 10 udalena hain zuzen ere.

Gaur egun ere, egitasmoa hiru arlotan banatzen da: eskola kirola, partaidetza-kirola eta kirol federatua. Arlo bakoitzean lantzen diren ekintzak ondorengoak dira:

Eskola kirolak bere gain hartzen ditu sustapen jarduerak, nesken pilota eskolen sorrera eta jarraipena eta Gipuzkoako eskolarteko nesken paleta txapelketa. Partaidetzako kirolaren xedeen artean ordea emakumeei zuzenduriko paleta ikastaroak, herriko festetan nesken paleta partidak antolatzea eta neska eta emakumeen paleta txapelketa herrikoak (jubenil kategoriatik gorakoentzat) zehazturik daude.

Azkenik kirol federatuari dagokionez, Emakume Pilotari Egitasmoak Emakumea Batzordearen sorrera eta jarraipena bultzatu du, trinketeko eta ezker hormako teknifikazio guneak eta neska federatuen lehiaketa egutegiaren berrantolaketa eta txapelketen hobekuntza lortzeko asmoz lanari ekin dio.

Zer nolako babesa eskaintzen dio Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak proiektu honi?

Proiektuafederazioarena berarena da, beraz, sustatzaile bakar eta sutua da egun. Esku artean dituenetan garrantzirik handiena dutenen artean kokatzen da, gainera. Diru-laguntzari dagokionean Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxak babesa ematen dute. Hala ere, puntualki zenbait udalen laguntza ere izaten da.





"Kurbatzen nabarmen egin du gora"

Tolosaldean noiz hasi zen lanean Emakumea Pilotari Egitasmoa?

Tolosako udala hasiera-hasieratik izan dugu bidelagun. Izan ere, hastapeneko 10 herri horietako bat izan zen eta ordutik ez du hutsik egin. Geroago, beste zenbait herritara hedatuz joan da eskaintza, horien adibide dira Ibarra, Irura eta Zizurkil.



Gaur egun zertan datza proiektu hau Tolosaldean, zer nolako eskaintza duzue momentuan eskualdean?

Tolosaldean honako eskaintza daukagu une honetan: Tolosa herrian aisialdiko paleta ikastaroa martxan dago, 10 lagunek osatuta; Ibarra aisialdiko paleta ikastaroan 7 lagunek izena eman dute eta Zizurkil ordea 8 lagun arituko dira aisialdiko paleta ikastaroan.

Aurten, zoritxarrez, ordea, Nesken Paleta Eskolarik ez da izango Iruran eta ezta Tolosa-Ibarra ere, bertako pilotari batzuk federatzeko bidea hartu dutelako, besteak beste. Hala ere, Irurak jarraituko du ezker hormako zein trinketeko teknifikazioko entrenamenduen egoitza bezala, eta baita trinketeko hainbat partiduren egoitza ere.

Kirol federatua, Altzo-Alegia -Ikaztegiak Intxurre elkarteak 3 talde izango ditu Gipuzkoako neska jubenilen txapelketan (6-7 pilotari) eta Anoetako Su-Berri elkarteak beste bat (4-5 pilotari). Horrez gain, Su-Berri elkarteak nagusi mailako 6-7 pilotari ere baditu.

Iazko urteari erreparatuta, federatu mailako pilotari kopuruak nabarmen egin du gora, aisialdiko ikastaroetakoa mantendu egin da, gehienek errepikatu egingo dute, eta eskola kirolekoak jaitzi da, aurten ez baita Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioetik Nesken Paleta Eskolarik gidatzerik aurreikusten, momentuz, behintzat.

Ikasturtea hasi besterik ez da bai-na kurtso amaierako Emakumea Pilotari Egunak zer nolako garrantzia du zuen ekimenean?


Aisialdiko ikastaroetan kokatu beharreko jardura da, kurtso bukaerarako gordetzen dugun ekintza bat. Oso egun berezia izaten da, jai bat izaten delako eta oporraldia hasi baino apur bat lehenago -azken 2-3 saioen faltan- ospatzen delako. Polita da, ikasturtean zehar Gipuzkoako herri ezberdinetan jarduten duten emakumeak elkartu eta elkar ezagutzeko aukera paregabea da. Era berean, emakumeak proiektuko zati sentitzea ahalbidetzen du, kohesioa landuz. Ikusgarria da hainbeste emakume eta hain adin zein molde ezberdinetakoak elkarrekin paletan ikustea. Nolanahi ere, egitasmoan garatzen diren ekintza guztiak dira garrantzitsuak guretzat: Emakumea Pilotari Txapelketak, Kutxa Sariak, Teknifikazio guneak, Nesken Paleta Eskolak, Partaidetzako Ikastaroak,...

Galtzaundi 10eko urriak 15

ZETA

MUNTAKETA ELEKTRIKOAK

Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219



23



ARTE TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK

Matrikula zabalik

Tolosa - Kale Nagusia, 16
Tlf. 677 340 685

Gozotegia

Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

ZABALA DESGUAZEAK


KUDEATZAILA BAIMENDUAK
EU2/111/04



BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL/FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

irakurri entzun Ikusi

Fahrenheit 451
Ray Bradbury
Itzultzailea: Nagore Tolosa



Nagore Tolosa berastegiarrak Ray Bradbury estatubatuarren distopia itzuli eta argitaratu berri du Txalapartak. Liburu honen protagonista, Guy Montag, suhiltzailea da. 451 zenbakidun kaskoa buruan, letoizko mangera-muturra ukabiletan, liburuak erretzea da bere lana, bere behar kuttuna. Izan ere, Montag bizi den herrialdean debekatuta dago irakurtzea. Irakurtzeak pentsatzea dakarrelako eta pentsatzeak zoriontasun eza.

Arnasak
Garikoitz Mendizabal
eta Aitor Furundarena



Arnasak, oso modu eder eta adierazkorrean, bi tresna eta tresna-jolearen arteko uztarketa esanguratsuaren isla dugu. Aitor Furundarenak eta Garikoitz Mendizabalek, eskusoinua eta txistua elkarren artean osatuz, maila handiko konposaketa alaiak eta dantzagarriak aurkeztuko dizkigute, aire zabalean herriko erakargarria eta unibertsala barreiatzen dutelarik.

Izarren argia
Mikel Rueda



1938. Victoria, errepublikano baten alarguna, Saturrarango kartzelan sartuko dute ahizparekin eta semearekin batera. Mesedetako mojen ardurapean dagoen emakumeentzako kartzela hartan gertatzen Espainiako Gerra Zibileko pasarterik latzenetariko bat. Eta Victoriak bere larruan jasan zuen hura guztia.

Urriaren 15etik urriaren 31era arteko hitzordduak

Bertso afaria

lurre Elkarreak antolatutako Bertso Afaria. Urriaren 23an, ostirala, gaueko 21.00etan. Bertan izango dira Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus. Informazio gehiago lurre Elkartean. 943 671 532

Musika

Hodeitruk

Urriaren 17an, igandean, eguerdiko 12.00etan. Tolosako Hodei Truk abesbatzak musika pop euskaldun eta internazionalan egin duen ibilbidea da David Azurzaren zuzendaritzapean ETBko Oh Happy day! telebista saiorako. Oraingoan Hodei Truk Samaniego eta Hodei Truk Hirukideren laguntza izango du. Sarrera 5 euroren truke eskuratu daiteke.

42.

Abesbatza lehiaketa

Munduko abesbatza lehiaketa garrantzitsuenetarikoa. Urriaren 16an San Frantzisko Elizan, Topaketen Kontzertua eta 42. Tolosako Abesbatza Lehiaketaren Aurkezpen ekitaldia egingo da. Lehiaketa berez urriaren 29 eta azaroaren 1ean bitartean ospatuko da. Parte hartzaileek

leek Leidor izango dute taula eta agertoki. Bertaratutakoek, besteren artean, Errusian, Ameriketako Estatu Batuetan, Suitzan, Ukrainian, Filipinetan, Bulgarian, Eslovenian, Japonian eta Euskal Herrian jatorria duten abesbatzen ahotsez gozatuko dute.

Txintxarri eguna

Urriaren 24an. Alegiako Txintxarri Txiki eta Txintxarri Abesbatzek Txintxarri Eguna ospatuko dute. Txintxarri Abesbatzaren 50. urteurrenaren ospakizun garrantzitsuenak. Bi koruek kontzertua eskainiko dute elizan eta ondoren bazkaria Kultur Etxean.

Antzerkia

Etzi antzezlanak. Urriaren 22an, ostiralean, gaueko 20.30ean. Karlos Linazasoren ipuinaren egokitzea, Asier Zinkunegiren zuzendaritzapean. Antzezleak: Gorka Zufiaurre, José Ramón Soroz, Pilar Rodríguez eta Asier Oruesagasti. Sarrera 10 euroren truke eskuratu daiteke. Down sindromedun pertsonengana eta beraien familiengana hurbiltzen lagunduko duen ikuskizun hunkigarria dugu. Etzik, umore, intriga eta drama puntu batez, bizitza eta gizakiarekin adiskidetzen lagunduko digu.

San Esteban, XXIII. kultur astea

Urriaren 15ean. 23.00etan. Enekora kontzertua (Korarpa afrikarraren kontzertu akustikoa) eta Africa Baj Yay afrikar perkusioa. Ondoren DJ Bull.

Urriaren 16an, 16.00tan hasita Altxorraren bila, mus txapelketa, haur jolasak, zaldi gardian paseoa auzotik, graffiti erakustaldia, buruhandiak, txokolate jana Bonberenea txarangak alaitua. Gauean La Banda del Jefe Bigun taldearen kontzertua eta ondoren DJ Puntzaka.

Urriaren 17an, goizeko 09.00etan hasita diana herriko txistulariekin, trikitixa auzoko baserrietan, meza auzoko hildakoen alde, toka txapelketa eta auzoko babarrun jatea, dantzaldia Koxkorrena orkestrarekin.

Bonberenea

Urriak 16, larunbata. 22.30ean.

Jon&Sugramas eta The Riff Truckers.

Urriak 22, ostirala. 22.30ean. Never Surrender.

Urriak 23, larunbata. 22.30ean.

Las culebras eta Surfin Kaos.

Urriak 29, ostirala. 22.30ean. Xarma.

Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionaturako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Tornu konbentzional bidezko mekanizazioa	2010/10/18	80
Testu editorea, kalkulu orria eta datu basea (hastapena)	2010/10/18	40
Galdaragintza eta trazaduren garapena	2010/10/18	60
Automatizazioa industriala	2010/10/25	40
Paper eta kartoi fabrikazioa. Hastapena.	2010/10/25	30
Kontserbak: ontziratzea eta izoztea	2010/11/02	10

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com
Webgunea: www.ikastn.com

Goardiako farmaziak

Ostirala, 15 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa	Asteazkena, 20 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Astelehena, 25 Iturrioz I. Euskal Herria, 3 Ibarra
Larunbata, 16 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	Osteguna, 21 Ugarte M ^a T. Euskal Herria, 46 Ibarra	Astearte, 26 Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa
Igandea, 17 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa	Ostirala, 22 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Asteazkena, 27 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa
Astelehena, 18 Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa	Larunbata, 23 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	Osteguna, 28 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa
Astearte, 19 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa	Igandea, 24 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	Ostirala, 29 Ugarte M ^a T. Euskal Herria, 46 Ibarra

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(Iarrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	Iurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	Ertzantza	943 673 022
Ikaztegieta	Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, Iarriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

Galtzaundi 10eko urriak 15



Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
**ZUEN
TZART**
*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*

BERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA

Laskorain kalea · TOLOSA
Tel.: 943 652 618

**ARALAR
KIROLAK**

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Urriak 30, larunbata. 22.30ean
Tulsa (Madril).
Urriak 31, igandea. 22.30ean.
MR. Protector (Frantzia) eta
Sacco.

Mikologia Jardunaldiak Tolosan

Tolosako Casino Elkartean
125. urteurrenaren ospaki-
zunen barruan.

Urriak 19an, 20.00etan, Zer-
kausian. Zampando Setas
mikogastronomia hitzaldia.
David de Jorge eta Rober-
to Ruiz. Hainbat perretxiko
mota prestatutako dituzte
eta hitzaldiaren amaieran
probatzeko aukera izango
dute bertaratzen direnek.

Urriak 21ean, 20.00etan,
Idiakes Jauregian. Onddo
eta perretxikoen bilketari
buruzko hitzaldia, Pedro Pa-
sabanez eskainia. Mikologo
eta Aranzadi Zientzia Elkar-
teko kidea.

Urriak 22an, 09.00etan. Tolo-
saldeko ikastetxeetako DBH
1eko ikasleek irteera egingo
dute perretxikotara. Arra-
tsaldean sailkatuko dituzte
Aranzadiko kideek Kultur
Etxean.

Urriak 23, 11.00etan, Triangu-
loan. Tolosaldeko jatetxeek
pintxoak prestatuko dituzte,
osagai nagusi onddo eta pe-
rretxikoak direla.

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingelesko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle titulu-duna. 664.16.02.68

Etxebizitza

• Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645 718 536

• 60m²-ko pisua salgai Berazubin. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sarzako prest. 616 278 843

• Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125

• Pisu edo apartamentu baten bila nabil alokairuan hartzeko. Tolosan edo inguruan. 656.744.115

Salgai

• Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512

• Igini markako akordeoia saltzen da. Tamainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxo opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Barealdia berriro ere bueltan da. Zorteko zara, lasaitasuna eta barne ordena sentituko duzu baina kontu berriak ezagutzeko indarrez josita egongo zara. Garai txarrari agur esateko unea iritsi da.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Ansietate garaia gainditu eta jasanberago egongo zara; garrantzia duena ez duenetik bereizteko gai zara eta garrantzitsuena dena, zure burua onartzeko gai izango zara.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Baikorrago egongo zara, zure etorkizuna nolako izango den argi duzu. Sormen garai batean murgilduko zara, pentsamendu berriak zure bizitzara erakarritza.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Energia askorekin zabilta eta nahi duzun horrengatik borrokan jarraitzen duzunez gatazkez beteriko garaia izango da, zuhur jokatu. Adrenalina erretzeko jardueraren bat topatzea beharrezkoa litzateke.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Kirio eta energia kontuak dantzan dabilta, hauek nola bideratuko dituzun pentsatu beharko duzu. Gatazka eta arazoak izango dituzu, gainezka egingo dizu egoerak, baina aurre egiten lortzen baduzu ilusioz ekingo diezu eronka berriei.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Ametsei erreparatu iezaiezu, informazio adierazgarri ugari ezagutaraziko dizute eta. Ohiturarik ez baduzu, ohetik altxatzerakoan eskura izan ezazu arkatza eta papera, bertan ideia nagusia jasotzeko.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Nahi duzun hori martxan jartzea erraza duzu, egin ezazu. Oroitzapen txarrak betiko alde batera utz itzazu. Aurrera begira ezazu, gauza ugari heltzeko daude. Indarberritzeko garaia izango da.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Komunikazioa beste pertsonekin momentu egokian badago ere, bakarrik egoteko gogoz zabilta. Betebeharrak ez izateak hobeto sentitzen lagundu eta zer nolako bizimodua nahi duzun pentsatzeko aukera emango dizu.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Gauzak lehengo martxan doazela nabaritzen hasiko zara. Zure autoestimua gora egiten duen heinean, indarrek ere gora egingo dute.



capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21

Sorkuntza garai oparoan murgildurik zaude, aprobetxatu ezazu eta buruan dituzun proiektuak martxan jarri itzazu. Aurrera egiteko energiak beteta zaude, ez izan inolako zalantzarik, momentuari erreparatu.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Lasaitasun eta segurtasunez bizitzeko egunean jar itzazu aseguruak, testamentua, ondasunak eta bankuko zorrekin harremana duen edozein paper.



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21

Arima eta emozio sakonei erreparatzeko unea. Iraganeko zerbaitek loa kentzen dizu eta berreskuratzeko modu bakarria barkatzea izango da.



GURE INGENIARIAK HARRITZEN DUTE GURE ZERBITZU KOMERTZIALAK ERE BAI.

BAZARRA 500 UNITATE
 LABURRI DUTENTE
 CITROËN LA PAGOEN HIRI BILKONTZEN ABANTIA **4.500€***

CITROËNEN BERRIKUNTZA EGUNAK HIRU DIAK, ETA ABANTILANDEREN HISTEN DIAK.

CITROËN C3 9.900€**/TK	CITROËN C3 11.200€**/TK	CITROËN XSARA PICASSO 13.400€**/TK

0% TAE* CITROËN GAMA OSOAN

36 HILABETETARA
10.000€(2)
FINANZIAGAIEREN

Normalean 100km/100km/CO2 Errota (C/Fuel) C3: 3.88; 9/19 138 CA: 4.44; 9/17 148 Raza-Picasso: 5.37; 3/130 172 CA-Picasso: 5.17; 4/125 135.

*TAE: Inklusioz (utan geroztako, Inklusioz gabe) Errota 100 unteko eragin, baina gehiako eragin: urteko 21 unte. Baita gehiako Inklusioz: PAF geroztako C3 1.3L CA 16-9000A, Kasa/Urteko 1.6 16L CA Raza-Picasso, geroztako Inklusioz berriztatze-eragin: C3 Errota berriztatze-eragin: Berriztatze-eragin: Errota geroztako Inklusioz geroztako (C/Fuel) Citroën berriztatze-eragin: Inklusioz: 100.000km/100 (128/10) eragin berriztatze-eragin: 10.000€ geroztako Inklusioz: Abantia Citroën Espainiako Inklusioz berriztatze-eragin: 10/10/10

IRÓVI, S.A. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA . INDUSTRIA GUNEA Z/G TEL. : 943 65 18 42. ANOETA/TOLOSA

harria gresak

25 urte zure bainugela janzten
 Neurria egindako bainugelatan espezializatuak

Zelaeta, 1 Beasain (Gipuzkoa) Tel. 943 885 466
 Emeterio Arrese, 7 Tolosa (Gipuzkoa) Tel. 943 245 200
 www.harriagresak.com - beto@harriagresak.com

NUTRIZIO AHOLKULARITZA

AMAIA ETXETXIPIA
 BIOLOGA

DIETA PERTSONALIZATUAK
 OBESITATEA
 NUTRIZIO BERREZIKETA
 ARIKETA FISIKOA
 HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA,
 5 B - 2ª ESKUBIA
 20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO
 HITZORDUA
 679 934 888

KOLEGIATU ZBK. 587

Txolarre
 Irratia

www.txolarre.org
 107.5 fm

HILETAREN BALIOA

Txina Inperiala



40 URTE eman zituzten Qin Shi Huang enperadorearen hilobia eraikitzen

2,13 Km²

hartzen ditu guztira mausoleoaren azalerak

700.000

LANGILE

aritu ziren hori eraikitzen

7.000 IRUDI

lurperatu zituzten enperadorearen ondoan, benetako tamaina dute eta terrakotaz eginak dira

Funeraria Vascongada ere pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren **Hileta Zerbitzu Packak** eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna,
baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

25 años
en TOLOSA

www.funerariavascongada.com 24 orduko zerbitzua: 902 40 29 00

